

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko otsailaren 7a

Herrian etxea salgai

■ Nafar askok bizimodu berri bati ekin dio goiko hitz horiek irakurri ondoren. Etxea erosi, hiria utzi eta herrian hasi dute bizitza berri eta ezberdina. Batzuek etxea eta lana aurkitu dute herri batean, beste batzuek Iruñean dute lana eta ondoko herri batean etxea. Nafarroako herritarrek, oro har, nahiago dituzte Iruñea ondoko herriak. Baztan-Bidasoa aldea ere oso estimatzen dute. Baita gipuzkoarrek ere. Herria jende askoren ametsa izan da, baina baita dezepzioa beste askorentzat. Herria bizitoki hartu duten hainbat lagunekin mintzatu gara euren esperientziaren berri jasotzeko. ■



Egillorren gehiago dira kanpotarrak bertakoak baino.

OSKAR MONTERO

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Berriz ere Parisek hots egin dit eta ezin izan diot ezetz eman.

Oroitzapenek agindutako bidean abiatu eta etorkizunari begira jarri naiz lehenak geroa zenbateraino baldintzatzuten duen ongi jakinda ere. Ekipaia prestatzen hasi eta aurrekoetan bezala nirekin batera zerbait etereoa, ikutuezi-na joanen dela jakin izan dut. Nafarroa Oinez-eko oihartzuna neraman nirekin azkenaldikoan eta txantxangorri baten itzala etorriko da oraingoan boltsa barnean. Norbaitek pentsa lezake zamarik ez dudala hartzen gainean bidaiak hasierakoan. Oker legoke, ordea. Gutxienez, oihartzunak baino askoz ere astunagoak dira itzalak.

Oraingoan ezin izanen dut Pere Lachaise eta Montpamassera hurbildu. Hilerrietako bakardadeak eztarria es-tutuko lidake. Itotzearen beldur naiz.

Sena ondoko bazterretara jotzea po-

sible izanen da soilik eguneko argita-sunak laguntzen banau. Iluntasunaren mamuak irentsiko ninduke bestela. Ezerezean ez dut galdu nahi.

Paul Eluard poeta gorriak, ni jaio aurretik, idazteko, hainbatetan aukeratzen zuen kafean gosalduko dut ordea, inongo lotsarik gabe. Pariseko kafe erromantikoek lau haizeetara zabaltzen duten usain erakargarriak sortzen didan tentazioari ezin diot eutsi.

Espero dut nire ahuldade hori kaltegarri ez suertatzea.

Eta malenkoniaren atzaparretan eroriko banintz, betiere metrora jaisteko aukera izanen nuke. Hantxe egon daiteke oraindik ere kantari neskatu ukrainarra. Hain zeukan ahots ederra.

Chartredera joan ninteke bestenez. Boris Ieltsin ez dago orain bidaia luzetarako. Bidea ez didate bere zaintzaleek oztopatuko eta batek-daki... Toki

berean egon daiteke karrika komertzialaren barnealdean utzitako irribarre zirrargarri hura. Bere jabeari ez galtzeko erregutu nion, oso ederra baitzen. Ez zitzaion ezer txarrik gertatuko. Ez dut uste. Trajedia bat liteke.

Edozein metro-ahora gerturatzerik ere badut betiere. Hantxe egonen da mutiko beltzaskaren bat, izaeraz irekia, irri zabalekoa, arduragabekeria osoz, konplizitate puntu batekin neri esateko: ez dago metroa hartzerik. Beste bonba bat jarri dute.

Eta morala altxatzen omen duen txokolatzeko pastela non erosten den badakit oraingoan.

Pariseko bohemiak aterbea eskaintzen dit. Ez nuke iazko inauteri astear-tean, Iruñean jasandako elurte handia berriz ere aurten gertatzea eta babes-lekurik gabe harrapatzea gainera.

Badaezpada... X

Parisek hots egin dit

* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iruña: Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 7, arratsaldeko 20.00etan, Gaiarre antzokian.

Aitzoain: Los Enemigos eta Artemius Big Bang taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 7, gaueko 23.30etatik aurrera Arsaia aretoan.

Iruña: The Black Crowes taldeak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 8, gaueko 20.45etatik aitzina. Anaitasuna kiroldegian. Sarrerak 2.500 pezetan (100 libera) izanen dira salgai. Kontzertu berean, Patti Rothbergen musika entzuterik izanen da.

ERAKUSKETAK

Zizur Nagusia: Charo Monjeren margoak herriko kultur etxean ikusgai izanen dira gaurtik otsailaren 26ra arte.

Barañain: VIII. Argazki Lehiaketara aurkeztutako argazkirik hobereak osatutako erakusketa zabalduko dute gaur, arratsaldeko 19.00etan, kultur etxean. Argazkiak hilaren 28ra arte izanen dira ikusgai, eta erakustaretoa asteartetik larunbatera arte egongo da zabalik, arratsaldeko 19.00etatik 20.30etara.

Iruña: Desagertzeko zorian dauden herriei buruzko argazki erakusketa izanen da ikusgai otsailaren 25era arte, Iruñeko Udalaren Zapateria kaleko erakustaretoan. Argazki guztiak Magnum agentziarenak dira.

Tafalla: Gardena taldea osatzen duten Nafarroako artisten margoak ikusgai izanen dira herriko kultur etxean otsailaren 13ra arte.

Lizarra: Arabako Arte Eder Museoko arte garaikideko bilduma ikusgai izanen da Gustavo de Maeztu museoan otsailaren 16ra arte.

BESTELAKOAK

Barañain: Inauteri jai erraldoia eginen du gaur Alaitz ikastolak, arratsaldeko 15.00etatik 16.30etara.

Lizarra: Udaleko Gazteri Batzordeak bere logotipoa hautatzeko lehiaketara deitu du. Horretan parte hartzeko bete beharreko baldintza bakarra 30 urte baino gutxiago izatea da. Logotipoak aurkezteko epea hilaren 30ean amaituko da. Informazio gehiago behar izanez gero deitu 54 82 24 telefonora.

Iruña: Frantsesez hitz egiten badakizu, frantsesez mintzatzea gustatzen bazaizu, eta ez badakizu norekin solastatu frantsesez, hurbil zaitez Niza kafetegiko lehen solairura. Bertan, asteatero arratsaldeko 20.30etatik aurrera frantsesezko mintza praktika egiten dute.

nafar kronika

Patxi Larrion

Diskurtso ofiziala

Azkar samar egin dute joan-etorria. Araiz eta Aoizen Madril-Iruña-Madril txangoa nork ordainduko duen argitu baino, hobe genuke bidaiatxoaren ingurukoek zer-nolako ordaina ekarriko diguten jakitea. Bazterketa prozesuan jauzi kualitatiboa eman da. Bazterketa diot, izan ere, azken aste hauetan diskurtso berriek iragartzen zutena betetzen ari baita. Gatazka kanpoko zerbait gisa aurkeztu da. Eragile exogenoak omen dira gatazka horren erantzuleak. Argudioak antzezlari moduan plazaratzen dizkigute, zenbait manifestaldiren *inguruan* egin muntaiak lekuko. Gizarte mugimenduetan murgildurik den jendeak edota *ofizialtasuna* informazio iturri bakartzat ez dutenek nekez ulertuko dute argudio hori. Ezagutzak beste-lako pleguak sortzen ditu hausnarketa egiteko

tenorean. Diskurtso ofiziala ustezko gehiengoaren lasaigarria.

Eleketari ofizialak haratago joan dira. Mañeruko apaiz ohiak, hamaikagarrenez, Euskal Herriari dion fobia adierazi du. Bere proposamenaren federakuntza eta independentzia baliatu ditu, harrigarria zinez. Talde horrek hainbat sektoretako pertsonak biltzen omen ditu; beraz, datozen barne eztabaidak Ajuria-Enekoak bezain gatazkatsuak gerta daitezke. Zenbaitzuk hitzetatik ekintzetara pasa beharrean izango dira. Bazterketak, satanizazioak nahi bada, berehalako ondorioak ekarri ditu. Alta, etorkizunekoek naute kezkatzen. Arerioa neurrikoa, ahula, hesitua izateak iraupena omen dakar. Arlo anitzetan ari den idazlea gisa horretan mintzo zaigu. Bizkitartean diskurtso ofiziala behin eta berriz gailentzen zaigu.



asteko pertsonaiak



Julian Retegi
Pilotaria


■ Eratsungoak hogeigarren txapela jantzi zuen joan den igandean. Donostiako Atano III.a pilotalekuan, Lasa III.a atzelariaren laguntzaz, 22-14 irabazi zuen Eugi eta Zezeagaren aurka, eskuz binakako txapelketako finala. Retegik lehendabiziko txapela, Bigarren Mailako manomanistakoa, 1975. urtean lortu zuen. Horren gibeletik 11 aldiz irabazi du Lehen Mailako manomanista (1980, 81, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 90 eta 93 urteetan), bost aldiz atera da garaile eskuz binakako lehiaketan (1988, 90, 91, 95 eta 97 urteetan), eta hiru lau t'erdiko *kaiolan* (1989, 90 eta 91 urteetan). Eratsungoarena ez da, inondik inora ere, marka makala. Gainera, ez litzateke batere harritzekoa izanen oraindik beste txapelaren bat eskuratzea.



Pablo Lorente
PCEko militantea

■ Pablo Lorente PCEko militanteak IUko parlamentario izateari utzi dio. Lorentek duela astebete aurkeztu zuen dimisioa, IUko talde parlamentarioak abenduaren 30ean egindako bileran, eta atzo azaldu zuen bere erabakia hedabideen aitzinean. Adierazi zuenez, *ezadostasun politiko sakonek* eragin dute dimisioa. Antza denez, IUk *Elkarbizitza Baketsuaren Aldeko Hitzarmena* sinatzeak Lorenteri geratzen zitzaion pazientzia apurra ahitu du. Parlamentario ohiak aurrerantzean PCEn buru-belarri lanean ariko dela iragarri du. Isabel Arboines IUko Nafarroako Talde Eragileko kideak hartuko du Lorentek Parlamentuan libre utzitako eserlekua.

ahaztu gabe!



NEGU KULTURALA

Mendillorri: Menditipi IKako euskaltegiak Negu Kulturala izeneko kultur egitarauaren bigarren ekitaldia prestatu du aurreten. Antolatzailearen arabera, kanpainaren helburua da «bai euskaltegiako ikasleen artean, bai herriko euskaldunon artean, karrikan euskararen erabilpena bultzatzea». Ekitaldiak, eguraldiaren arabera, ikastetxeko ikuskeri aretoan edota kalean bertan eginen dituzte, arratsaldeko 20:00etan hasita. Otsailaren 13an Amerikari buruzko hitzaldia eta diaporama izanen da. Otsailaren 27an grabatuai eta serigrafiei buruzko mintzaldia eta erakusketa izanen da entzungai. Otsailaren 29an sagardotegi batera txangoa eginen dute. Martxoaren 13an *Helduentzako euskalduntze prozesua eta ikastolen sorrera frankismoaren pean* hitzaldia izanen da. Martxoaren 25ean, *Iratiko lau sasoiak* naturari buruzko hitzaldia eta diaporama izanen da. Apirilaren 10ean bertako musika tresnei buruzko erakusketa jarriko dute ikusgai. Azkenik, apirilaren 24an Karibe aldeko musika emanaldia egonen da.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Tafalla

Kirol Astea eta herriko feriak

Nafarroa Oinez 97k, besteak beste, pilota partiduak prestatu ditu iganderako

Tafallako Udalak antolatuta, Kirol Astea eta herriko feriak egingo dituzte gaur eta igandera bitartean Tafallan. Kirolari dagokionez, ekitaldi ugari prestatu dituzte, besteak beste, kirolaren jaialdia, hitzaldia, pilota eta futbol partiduak. Bestalde, larunbatean eta igandean egingo dituzte feriak azoka barrutian. Artisauen produktuak ezezik,azienda ere ikusi ahal izanen da.

Erredakzioa / Iruñea

GAUR hasi eta igandera bitartean, Tafallako Kirol Astea eta herriko feriak egingo dituzte, Tafallako Udalak eta herriko beste hainbat taldek antolatuta. Kirol Asteari edo kirol egunei hasiera emateko, Tafallako kirolaren jaialdia egingen dute gaur, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Bertan, Tafallako kirolaririk onenek saria eskuratuko dute, besteak beste, Txente Garcia txirrindulariak eta Juan Jose Iturralde, Virginia Arregi eta Amaia Arregi igerilariak.

Izanen da beste sariturik, Tafalla Igeriketa Taldea eta Miguel Sanchez Tafallako Txirrindulari Taldeko zuzendaria, hain zuzen ere. Pepsico enpresari ere kirolari emandako laguntza eskertuko diote.

Jaialdiaren bukaeran, Javier Onecari, entrenatzen ari zela zendu zen Tafallako Txirrindulari Taldeko kideari, omenaldia egingen diote kirolari guztiek.

Gaurko ekitaldian, halaber, hitzaldia eskainiko dute Nafarroako zenbait kirolarik, hala nola, Julian Retegi pilotariak, Juantxo Fuertes igerilariak, eta Aitor Fresan, Javier Lopez-Vallejo, Simons eta De Freitas Osasunako jokalariek.



Tafallako feriak ospatuko dituzte larunbatean eta igandean.

ARTXIBOKOA

Larunbatean, kirolari eskaintako ekitaldiekin jarraituz, areto-futbol partidu berezia izanen da Ereta pilotalekuan, arratsaldeko ordu bata eta erdietatik aurrera. Udaltzua Udaletxeko langileen kontra ariko da. Leku berean, beste futbol partidu bat izanen da arratsaldeko lauretan. Oraingoan emakumeak izanen dira kantxan, Sport taldea bate-

etik, eta Lagun Artea bestetik. Eta arratsaldeko bostetan, azkenik, Ereta pilotalekuan ere Tao eta Makotxa taldeetako neska-mutilek borroka-arten eta gimnasia erritmikoaren erakustaldia egingen dute.

Igandean pilota izanen da protagonista Ereta pilotalekuan. Nafarroa Oinez 97k antolatuta, jaialdi bikaina ikusteko aukera izanen da arratsaldeko 4.45etatik aurrera. Lehendabiziko Iratzola eta Salaberri Errandonea II.aren eta Apeztegiaren aurka ariko dira. Ondoren, Retegi II.ak eta Errastik Eugi eta Errandonea

izanen dituzte aurkari.

Kirol Astea ezezik, feriak ere izango dituzte egun hauetan Tafallako biztanleek, larunbatean eta igandean zehazki. Larunbatean euren produktuak salgai jarriko dituzte artisauak eta nekazariak Tafallako azoka barrutian, eta nekazaritza tresnak ere ikusgai izanen dira bertan. Leku berean, herri kirol saioa egingen dute larunbat eguerdian. Zaldi, idi eta gizon probak izanen dira. Igandean, berriz, ganadu feria egingen dute azoka barrutian, egun hauetako ekitaldiei amaiera emanez. X

Leitza

Poloniako Zielona Gora abesbatza dator herrira

■ Otsailaren 11tik 15era egonen dira Leitza

Erredakzioa / Iruñea

ZIELONA GORA abesbatza Leitza ailegatuko da igandean, hilaren 9an, eta bertan aste bete emanen du, herritarren etxetan. Poloniarak herriko Asketa abesbatzak gonbidatuta etorri dira. Zielona Gora abesbatzako kideak hemen egon ondoren, Poloniara joateko asmoa dute leitzarrek.

Leitza emanen dituzten egunetan, hainbat irteera egingen dituzte Zielona Gora abesbatzako kideek zenbait lekutan abesteko. Datorren asteartean, hain zuzen, Iruñean izanen dira. Arratsaldeko zazpi eta erdietan kontzertua eskainiko

dute Iruñeko Donibane auzoko El Huerto elizan.

Asteazkenean, hilak 12, Donostiako Loiola auzoko elizan izanen dira, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Biharamunean, Nafarroara itzuliko dira eta Lizarran emanen dute kontzertua. Musika Kultur Aretóan izanen dira, arratsaldeko zortzietan.

Leitza bertan eskainiko dute Zielona Gora abesbatzako partaideek azken kontzertua, elizan, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Leitza azken emanaldia bukatuta, larunbatean, hilak 15, Poloniarako bidea hartuko dute berriro abeslariak. X

Zizur Nagusia

Herriko Musika Eskola inauguratuko dute gaur

■ Biharko ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Erredakzioa / Iruñea

ZIZUR NAGUSIKO Musika Eskola inauguratzeko hainbat ekitaldi prestatu ditu gaur eta biharko Musika Eskolako Patronatuak. Eskola berria gaur arratsaldeko zazpitan zabalduko dute, Cesar Hualde eta Esther Anduezen eskutik. Gitarra eta piano kontzertua eskainiko du bikote horrek. Ordubete iraungo du kontzertuak, eta XX. mendeko musika joko dute.

Larunbatean, goizean hasiko dira ekitaldiak. Hamaitetan egingen dute inaugurazio ofiziala. Ondoren, eguerdian, La Trova taldeak *Lecciones musi-*

cológicas lana aurkeztuko du Musika Eskolan bertan. Musikaren historiari eta oinarrizko tresnei buruzko parodia bat da, eta Angel Unzuak zuzentzen du obra.

Musikaren egilea Iñigo Casali da, eta testuarena Javier Horro. Javier San Julianek eta Manuel Hornok ere hartzen dute parte. Ia bi ordu iraungo du *Lecciones musicológicas* ikuskizunak.

Zizur Nagusiko Musika Eskolaren inaugurazioa ospatzeko patronatuak antolatu dituen ekitaldietan parte hartu nahi duenak Musika Eskolan bertan eskuratzen ahal ditu gonbidapenak. X

Gartzain

Bihar amaituko da Gurelur elkarteak antolatu duen Leader mintegia

■ Hainbat herritako 72 partaide bildu dira Baztanen

Erredakzioa / Iruñea

LEADER Behatoki Europarrak eta Garalur elkarte nafarrak antolatuta, jarduera berriak bultzatzeko laguntza sistemak aztertzen ari dira atzotik eta bihar arte Gartzaingo Baztan hotelean, Leader mintegiaren barruan. Leader Behatoki Europarraren laguntza ezezik, Europako Batzordeko Nekazaritzako VI. Zuzendaritza Nagusiaren, Nafarroako Aurrezki Kutxaren eta Nafarroako Enpresa Europarren eta Berrikuntza Zentroaren (CEIN) laguntza ere jaso du Garalurrek mintegia antolatzeko.

Osozara 72 kide ari dira parte hartzen Gartzaingo bileran, Italia, Frantzia, Holanda, Irlanda, Finlandia, Suedia eta Britainia Handitik etorriak. Mintegian, zonak garapenerako eta enpresa berriak sortzeko eskaintzen dituen aukerak aztertu ahal izanen dituzte, baita enpresak laguntzeko dauden sistemak ere. Gainera, Irlandako, Frantziako, Holandako, Britainia Handiko, Espainiako eta Nafarroako mendialdean abian jarri diren sei proiektu aztertuko dituzte.

Nafarroari dagokionez, Garalur taldeak CEINEkin, Nafarroako Lan Enpresen Elkartearekin, Nafarroako Merkataritza eta Industria Garapenerako Kudeaketarako Institutu Teknikoarekin eta Bertizarana, Plazaola eta Pirinioetako patzuergeekin abian jarri duen proiektua izanen da aztergai. Proiektu honen bidez, Nafarroako mendialdeko zonetako Enpresa Txiki eta Ertainei laguntza zerbitzu bereziak eskaini ahal izan dizkie Garalurrek, batez ere nekazaritzako elikagaien eta turismoaren sektoreetan.

Proiektuak gertutik ezagutzeko hainbat leku bisitatuko dituzte mintegiko partaideek.

Gartzaingo mintegia bihar amaituko da. Itxiera ekitaldia arratsaldeko bostetan egingen dute eta bertan Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako lehendakaria izanen da. Aurretik, arratsaldeko lau eta erdietan, mintegian aztertutako gaiet buruzko ondorioak aurkeztuko dituzte. Ekitaldian parte hartuko dute, besteak beste, Tomas Rubio Villanueva Nekazaritza, Elikadura eta Arrantza Ministerioko Planifikaziorako zuzendari nagusiak, Francisco Jose Oartzabal Baztango Udaleko alkatetik, Jose Maria Aierdi Garalur elkartearen lehendakariak eta Doriane Givord-ek, Leader-en Europako Batzordeko Nekazaritzako VI. Zuzendaritza Nagusiko arduradunak. X

Hiritik herrira
bestelako bizimodu baten bila



Egillorren, Txepillo eta Korok bezala, bikote askok aurkitu dute nahi zuten etxea.

OSKAR MONTERO

Hiritik ihesi, herria lagun

Landa turismoaren eraginez, bide ezberdinetatik herrira doa hiritar asko eta asko, batez ere iparraldera

Edurne Elizondo / Iruñea

HIRIKO eta herriko bizimodua hagitx ezberdina da. Ongi dakite leku bietan bizi izan direnek. Garai batean, herritarrek hirira joaten ziren lan bila, baina azken urteetan, eta egun ere bai, aldeantzikoa da askoren bidea: hiritik herrirakoa, alegia.

Hiritarrak herrira eramaten dituzten arrazoiak anitz dira, eta hagitx ezberdinak. Herria, bizitoki ezezki, lan leku ere bada askorentzat. Beste batzuek hirian dute lana eta herrian etxea. Ahal dutenek biak, hiria eta herria, tartekatzen dituzte. Edonola ere, herriko bizimoduak eragin ezberdina du batzuen eta besteengan. Batzuek herrian errotzen dira, eta beste batzuek hirira itzuli behar izaten dute denbora baten buruan. Askok izan dira herrietara bizimodu alternatiboaren bila joan eta baserriko errealitatearekin aurrez aurre topo egin dutenak. Herriaz dugun ikuspegi bukoloikoak ez du, gehienetan, baserriko lanaren eta bizitzaren gogortasuna arintzen; alderantziz gertatzen da askotan.

Ester Mugertzak bazekien herria zer zen Baztango Ziga herrira ailegatu zenean orain dela bost urte, Hernaniko baserri batean hazia baita. Gasteizen, hiria zer zen ezagutu zuen. Eta ez zitzaion batere gustatu. «Klaustrofobikoa», laburbiltzen du: «Donostiara, hondartzara ihes egiten

Hiritar askok hartu du azken urteetan herrirako bidea. Landa turismoak izan du eragina, herriak ezagututa bertan gelditu nahi izan baitute askok. Nafarroako iparraldeko herrietara gipuzkoar asko iritsi da, baina iruindarrak ere hasi dira herriak bilatzen, herrian sortuak direlako batzuk, hiriaz neka-neka eginda daudelako beste batzuk. Nafarroako herriak bizitoki aukeratu dituzten horietako batzuekin mintzatu gara haien esperimentziaren berri izan nahian.

nuen haizea hartzera, itotzen nintzenezan».

Ester Mugertza Malerrekako euskara teknikaria da. Lanpostu horrek eraman zuen Gasteiztik Doneztebera, eta gero Zigara. Zigan, herritik at dagoen baserri batean bizi da, bakarrik. Ordu laurdenera dauka gertuen bizi den auzokidea. Hernaniar honek argi eta garbi zuen herrian bizi nahi zuela, mendizale eta baserriazale amorratua baita. Zigan duen bizimoduko gauzarik inportanteenetakoak «askatasuna, lasaitasuna eta naturarekiko harremana» direla nabarmetzen du. «Hiri batean bizitzea kartzela batean bizitzea da niretzat».

Ester Mugertzak zalantzarik gabe plazaratzen du hiriburuaz duen iritzia, baina onartzen du bere kasua ez dela ohikoena. «Herri batean jaiotako pertsona bat ederki bizi daiteke hirian. Ni ez». Espazio zabala baitu gogoko hernaniarrak, ateak zabalik bizitzea, etxean auzokideen begiradapetik at bizitzea. Eta hirian zaila da hori.

Baina herrian ere ez da dena

ona, are gutxiago Ester Mugertza bezala herritik aparte dagoen baserri batean bakarrik bizi bazara. «Batzuetan agobiatu egiten naiz. Bakarrik nagoela pentsatzen dut, eta zerbait gertatuz gero... Arriskua dago, isolatuta bizi gara», dio Malerrekako euskara teknikariak.

Kanpotarren integrazioa ere mintzagal izan dugu Ester Mugertzarekin. Berak ez du inolako zalantzarik: «Hemen integratzea ezinezkoa da. Hemengo batekin ezkondu eta lau seme-alaba izango banitu ere, 85 urterekin kanpotarra izaten jarraituko nuke». Hernaniarraren ustez oso itxiak dira baztandarrak, eta ho-

Ester Mugertza:
«Hemengo batekin ezkondu eta lau seme-alaba edukita ere, 85 urterekin kanpotarra izaten nintzateke oraindik»

rrek asko zailtzen du harremana: «Bost urte eman ditut hemen baina ez dut konfiantzako lagunik egin, eta pertsona irekia naiz. Baina hemengo jendea oso-oso itxia da, *ttukuttuku* deitzen diote elkarrri, hala delako».

Inguruko etxe askorekin gertatzen ari dena aipatu digu Ester Mugertzak horren adierazgarri. «Etxeak erortzen ari dira, herriak husten, saldu edo alokatu nahi ez dituztelako, odolaren eta tradizioaren bidez jasotakoa ez dutelako galdu nahi. Ni baserritarra naiz, baserriatik nator, eta ulertzen dut sentimendu hori, baina hemen gertatzen ari dena gehiegizkoa da», azaldu du Hernanikoak. «Herrietan ez dago jende gazterik, eta hori oso larria da. Doneztebe, Elizondo eta Mugairi bezalako herriak handitzen diren bitartean, herri txiki asko husten ari da», gaineratu du.

Herrian integratzeko lanak asko laguntzen duela uste du Ester Mugertzak, bestalde. «Niri lagundu dit; gainera, lanari esker, harreman zuzena dut jende askorekin. Baina Donezteben la-

gundu dit, han neure burua kokatzeko, baina bizi, Zigan bizi naiz, oraingoz». Laster, dena den, Donezteben biziko da, herritik kanpo dagoen etxe bat hartu baitu.

Kanpotar mota ezberdinak • Hiritarren edo kanpotarren etorretaz bertakoek duten ikuspegia Joseba Igarabide baztandarrak eman digu, Xorroxin Irratiko ki-deak. Kanpotarren artean, mota ezberdinak bereizten ditu berak: «Lanera etortzen direnak eta hemengo bizitzan integratzen saiatzen direnak; bakarrik aste-buruetan etortzen direnak; eta turistak». Lanera etortzen direnen artean ere ezberdintasunak daude, Igarabideren ustez. «Batzuek lanpostu bat bilatzen dute, irakasleak dira gehienak. Beste batzuk baserrian lan egitera etorri izan dira, eta gehienak etsita itzuli dira etxera».

Azken horiei dagokienez, orain hamar bat urte iritsi ziren Baztan aldera. «Hippy mentalitatea zuten eta bizimodu alternatiboa egin nahi zuten baserrian. Baina sekulako jipola hartu zuten. Konturatu ziren baserria zein gogorra den, zein gogorra den bakarrik eta isolatuta bizitzea. Gehienak etxera itzuli ziren. Azken aldian, landa turismoaren bidez itzuli da jendea herrietara, Gipuzkoa aldetik batez ere». Ester Mugertza ere Igarabiderekin bat dator: «Kontraesana sortu

Hiritik herrira bestelako bizimodu baten bila

zuten hemengoengan. Hemen-
goek egun guztia ematen zuten
baserrian eta ez zuten aberas-
tasunik ikusten, hemendik ihes
egitea pentsatzen zuten baka-
rrik. Eta kanpotarrak, hori bera
bizitzera etorri ziren. Mesfidantza
sortu zen».

Herrian integratzen saiatzen
direnei euren esfortzua eskertzen
badie ere, asteburuetak bisita-
riek buruz badu zer erranik Jose-
ba Igarabidek: «Ez dira integra-
tzen, ez ekonomikoki, ez sozialki,
ez dute herriaren bizitzan eragi-
nik. Bizkar gaintetik begiratzen
dietela ustea dute hainbat herri-
tarrek ere». Baina oro har, kan-
potik etorritako jendeak herriari
eman diezaiokete ere azpima-
rratzen du Joseba Igarabidek:
«Bizitzari buruz duten ikuspegia
eman diezaiokete herriari, kos-
mopolitagoak dira, eta hemen-
goen itxitasuna zabaltzen ere
lagundu dezakete. Gure herrira
bizitzera eta lanera datorren jen-
deari erraztasun gehiago eman
beharko genioke, haiei esker etxe
zahar asko ez baita galduko».

Iruñetik hurbil, lana dela eta

Ester Baztan aldera joan zen be-
zala, bada Iruñetik hurbil gelditu
nahaigo duen jendea, lanagatik
batez ere. Hori da Anabelen ka-
sua. Euskara teknikaria da eta

Orkoienean egiten du lan, baina
Egillorren bizi da. Iruindarra ba-
da ere, Belaguatik allegatu da
bizitoki berrira Anabel.

«Hogei urte nituela Belaguako
aterpera joan nintzen lan egite-
ra, eta hamar urte eman ditut
han». Beraz, ez da harritzekoa,
mendian hainbeste denbora
eman ondoren, hirira itzuli nahi
ez izana. «Argi nuen, ez nuen

**Joseba Igarabide: «Gure
herrira bizitzera eta
lan egitera datorren
jendeari erraztasun
gehiago eman beharko
genizkioko»**

Iruñera itzuli nahi», azpimarra-
tzen du.

Egillor Iruñetik hamabost ki-
lometrora dago, eta agian horre-
gatik, bikote asko joan da hara
bizitzera. Anabel izan zen lehen-
bizikoetako bat, baina orain ha-
mabost bat bikote bizi dira.
«Bertakoak baino gehiago gara
kanpokoak. Etxe asko egon da
salgai eta jendeak erosi egin ditu.
Batek lagun bati esan dio eta

horrek beste bati eta azkenean
talde ederra bildu gara hemen.
Ondoko Beasoain herrian, berriz,
ez da hori gertatu, ez dagoelako
etxerik salgai», azaltzen du.

Anabelentzat garrantzitsua da
Iruñetik gertu bizitzea, «ez asko
joaten garelako, ondoan dagoela
badakidalako baizik». Ez da ba-
karra. Txepillo eta Korok osatu
bikotea ere Egillorren bizi da,
baina Iruñean dute lana. Egune-
ro egiten dute joan-etorria. «Herri-
txiki bat bilatzen ari ginen bizi-
tzeko, baina Iruñetik hurbil, la-
na han baitugu. Ni Cintrueni-
gokoa naiz, eta Iruñean egon
ondoren leku lasaia nahi genuen».
Seme-alabak izatean, are
argiago ikusi zuten herri batean
bizi na- hi zutela, «leku zabala
izateko, kalean jolastu ahal iza-
teko».

Integrazioa ez da zaila izan
Egillorko kanpotarrentzat, talde
zabala osatzen baitute. «Agian
zailagoa izan zen lehenik etorri
zirenentzat, baina ez dago ino-
lako arazorik», aipatzen du Txepi-
llok. Kontent dago egin duten
aukerarekin. Beste aukerei bu-
ruz mintzatzean, argi dauka:
«Bizimodua erabat aldatzea, ba-
serri batera lanera joatea, alde
batetik oso garestia da, eta bes-
tetik, guretzat errazagoa zen egin
duguna».



Zigako baserri batean bizi da Ester Mugertza hernaniarra.

EZKALO

Ultzama, preziatuena eta garestiena

E. E / iruñea

EZKALO-k, Doneztebeko higiezi-
nen agentziak, urte asko darama
Nafarroako herrietako etxeak,
baserriak eta bordak saltzen.
Iruñeko bulegoan, 40 bat saldu
zituzten iaz. Eskaintza zabala da,
ia denen gustukoa: borda zaha-
rarak, borda berriak, etxe zahar
eta berriak, txiki eta handiak,
baserri zahar eta berrituak... Ez-
kalora jotzen duen jendea ere
mota askotakoa da: senar-emaz-
teak, bikoteak, lagun bakarrak,
gazteak, zaharrak... Eta prezioak
ere, denen aukerakoak: «Borda
bat milioi bat pezetaren truke
eskura daiteke. Ura eta argia ba-
du, bost edo sei balio ditzake, eta
berritua badago, baimen guztie-
kin, zortzi edo hamar milioiren
truke eskura daiteke», azaldu
digu Jose Antonio Elizondo Ez-
kaloko nagusiak.

Etxe eta baserriak garestia-
goak dira, oro har. Bizitzeko ego-
kia den etxe bat 15 milioi peze-
taren truke eskura daiteke. Ba-
dira merkeagoak ere: «Etxe zahar
bat, solairu bakoitzeko 80-100
metro dituen, ganbara eta
akuiluarekin, sei milioi eta erdi-
ren truke eskura daiteke». Etxea-
ren egoera gero eta txarragoa,
noski, gero eta merkeagoa: «Bi
milioi eta erditik 50 edo 100 mi-
loira igo daiteke prezioa». Eta
Cortesien gaztelu bat erosi nahi
duenak, 130 milioi pezeta or-
daindu beharko ditu. «Egon da
ikusitua nahi izan duen jendea,
baina ez bizitzeko, bertan negozio
bat jartzeko baizik», azaldu ditu
Iñigo Ezkietak, Ezkaloko Iruñeko
bulegoko kideak.

Etxe edo baserrien prezioa, de-
na den, ezberdina da Nafarroako



Argazkian, Etxalarko baserri bat. Halakoak bilatzen dituzte hiritar askok.

EZKALO

zonaren arabera. «Nafarroan,
gaur egun, Ultzama da eremurik
preziatuena», aipatu du Elizon-
dok, «eta baita garestiena ere.
Txalet baten truke 25 milioi pe-
zeta eskatzen dituzte, gutxienez».
Ultzama da Nafarroako zonalde
preziatuena Iruñetik oso gertu
dagoelako, iruindarrek, oro har,
hiriburutik gertu erosi nahi iza-
ten baitituzte etxeak. «Ultzaman
ezezik, Zubiri edo Belaterako
errepidean, asko eskatzen dituz-
te», gaineratu du Ezkietak. «Ger-
tu nahi dituzte, Iruñean lan egi-
ten dutelako», azpimarratu du.
Iruñetik gertu dauden etxeak

ezezik, Nafarroako iparraldekoak
eskatzen dituzte gehienbat na-
farrek, Baztan edo Malerreka al-
dean, adibidez. Jose Antonio Eli-
zondoren ustez, gainera, Belate-
ko tunela zabaltzen dutenean,
askoz gehiago joanen dira hiri-
tarrak bertara, «Ultzama baino
merkeagoa baita». Azken aldian,
dena den, bertan ere hasi dira
prezioak igotzen. «Jendeak etxeak
nahi dituela konturatu direlako
jabeak. Orain hamar urte herri
erdia erosten ahal zenuen asko-
tan orain etxe batengatik ordain-
tzen duzunarekin», aipatu du
Iñigo Ezkietak.

Baztanen, Zugarramurdi,
Erratzu, Amaiur eta Arizkun he-
rriak oso gustuko ditu jendeak.
Bestalde, Doneztebe, Mugairi,
Zubieta, Elgorriaga eta Legasa
herrietan ere askok eskatzen
dute etxea.

Bortzirriak aldean ere eskaera
handia da, batez ere Gipuzkoa
aldetik. Eskaintza, ordea, oso
urria. «Urte asko eta asko dira
Beran etxe bat saltzen ez dugula.
Pisuak saltzen dira bakarrik, eta
oso garesti gainera». Bestelakoa
da Etxalarko egoera: «Une hone-
tan, zazpi bat etxe ditugu salgai».
Ezkaloko higiezin agentzian,

azken bost urteetan bezero ko-
purua asko igo dela sumatu dute.
Eta bertako kideen ustez, gora
eginen du oraindik. «Herri batean
etxe bat erosteko arrazoiak uga-
riak izan daitezke. Batzuk herri
batean jaiok dira, eta, hirian
egon ondoren, herrira itzuli nahi
dute. Beste batzuk nekatu egin
dira hirian, eta herrietako lasai-
tasuna bilatzen dute. Bestelako
bizimodu bat hasteko aukera ere
eskaintzen dio herriak jende
askori», dio Elizondok. Jakina, de-
nak ez dira berdin egokitzen, eta
herrian aurkitzen dutena hara
joan aurretik buruan zuten
ideiarekin bat etortzen den edo ez
ikusitua behar da. «Badira herri-
tik hirira itzuli behar izan dute-
nak».

Jose Antonio Elizondok aipa-
tzen duenez, nekazaritza turis-
moak asko bultzatu du etxe eta
baserrien erosketa. «Nekazaritza
turismoak herri bat ezagutzeko
aukera eskaintzen du. Hurrengo
urtean itzuli egiten zara, eta az-
kenean, etxea erosi nahi duzu,
nahi duzunean joan ahal izate-
ko». Baztan-Bidasoa aldeak izan
duen arrakasta ulertzeko, zonal-
dearen azpiegitura aztertu behar
da: «Hotel sare ederra dago, arte
galeriak, Bertizko Jauregia,
Zugarramurdiako kobazuloak,
Urrozko urtegiak... Jendearren-
tzat erakargarria da hori guz-
tia».

Nafarroako iparraldera iruin-
darrak joaten hasi badira ere,
gipuzkoarrak dira Ezkaloko be-
zerorik preziatuena. «Nafarroan
hamar milioi pezeta balio duen
baserriak, 30 milioi pezeta balio-
ko du Oiarzunen. Arrazola sin-
plea da: Gipuzkoan baserri ba-
koitzeko berrehun erosle dago». X

Xanti Begiristain

Bai intsumisioari

■ Irakurle, ez dakit orain dela egun batzuk ikusiko ote zenituen telebistan agertutako irudi gordinak, alegia, Ipar Amerikako Estatu Batuetako marine veteranoek hasberriei egin zizkieten astakeriak. Ikusi ez bazenituen ere esanen dizut zer gertatu zen: soldadu veteranoek jarrarazi zituzten hasberriak horma baten kontra, zutik, eta orduan kolpe bortitzak emanaz, eta aldi berean, atximurkada handiak eginez, sartzen zieten domina militar zorrotz bana paparrean. Kasu gehienetan, gainera, kamisetan zehar.

Beteranoek, jakina, ongi pasatzen zuten, edo itxura hori egiten zuten behintzat. Hasberriak aldiz, noski, arrunt momentu txarrak igarotzen zituzten, baina gainera, militar eta soldadu artean nabaria da izaten den harropuzkeria eta gizonkeria. Kasu horretan ere guztiz nabarmen gelditzen zen alderdi hori eta horretarako hasberri gizarajok saiatu behar zuten oinazea jasaten eta nozitzen oihurik egin gabe, era horretan beren «gizotasuna, ausardia eta artasuna» erakusteko. Benetan bitxia eta iraingarria militarren munduan eta beren inguruan erabiltzen den hainbat eta hainbat jokabide!

Baina militarismoa ez da hor bukatzen, askoz ere urrutirago joaten da. Denok dakigun bezala, militarismoaren eginkizun nagusienerako batzuk dira gerrarako prest egotea, eta agintean daudenak defenditzea, beraz, hil egin beharra baldin badago, ba, inolako konplexurik gabe hil egingo dute. Baina eskarmen-tuak esaten digu, asko eta askotan, bide batez, militar eta soldadu horiek aprobeztatzen dutela gauzatzeko sarraski, hondamen, bortxaketa, sexu gehiegikeria, lapurreta eta arrazakeria—jokaera lotsagarri ugari, besteak beste, mundu osoan zehar beren izenak gehiago eta gehiago zikintzeko oraindik.

Baina zoritxarrez, aurreko petralkeriekin batera, militarismoaren munduak badarama berearekin beste *minbizi* arras kaltegarri bat, hau da, armagintzaren gora-behera guztia.

Gaur egun norik ez ote daki armagintza dela mundu honetan dagoen negoziarik handienetakoa?

Gainera ez dezagun pentsa gu santuak garela eta horretatik libratzen garela, ez, tamalez gure Euskal Herri triste honetan alderdi horretan oso aberats gabilta, alegia, arma asko fabrikatzen dira, saldu eta negoziatu egiten da, nahiz eta gero, beste askotan bezalaxe, egundoko hipokirisia dagoen eta orban gabekoen itxura egin nahi izaten dugun.

Hala ere, mota guztietako armekin negoziatzen da gure mundu honetan batera ahalkerik gabe. Bakar batzuk majo aberasten dira, beste pertsona asko izorratzen dituzten bitartean: makina bat pertsona hiltzen da edo gelditzen da zauriturik, hanka edo besamotz,itsu edo gor edota betiko arrasto txarrekin. Era berean ere, inolaz ezin ditugu ahaztu gerretan egiten diren erreketak, suteak, kutsadurak eta abar.

Argi dago armada eta armagintzaren afera zaila eta konplexua dela, baina modu berean ere gogoratu beharra dago gizakiak arazoiztunak garela, eta lehenago edo beranduago, jo beharko genukeela nazio eta herrien arteko arazoak beste modu batez konpontzera.

Hortaz ba, orain arte esandako arrazoi guztiengatik jotzen dut positibo eta onuragarritzat intsumisioa. Uste dut, intsumisioak oso lan egokia egiten ari direla mundu zabalean desarma lortzeko eta gudak desagertarazteko. Horrexegatik adierazten diet hemendik neure elkartasuna munduko intsumisio guztiei, eta bereziki, Nafarroan dagoen mugimendu bizkor eta eragilerari. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko


Joxemiel Bidador

Sakan mix II: Blas Alegria lakuntzarraz eta bi

■ Aurreko astean Nafarkariratu Blas Alegria lakuntzarrari nahiz berak Olabe sariketarako 1928.ean aurkeztu *Aña Mari: misiotako antzerkia* antzerkianari lotuko gatazko harzara gaurkoan. Idazlanaren azpi izenburu berak aditzera eman diezagukeenez, eta garai hartan ere ohizkoa zenez, bi dira hariak txirikordatzen dituzten ideirik nagusiak: Euskal Herria eta erlijioa. Beraz, nekez harri gaitzake horrelakorik letzea: «Gure gazte denboran... aik ziran egunak, aik. Aurreneko egunetik mutillak agin adarrak ekarri, ta neska ezkongaiantzat moltzoka polilitak egin ondoren, polliki polliki jantzi, ta urren goizian goi, loretegi zuri gorrien antzera atal golenian jartzen zituzten. Ardi ta arkume gizenenak ill, ta mutillak aragiari, neskatxak tripakiari: aik, larreñetan gjerriñakin; oik ibai bazterrian lilaiakin; gizonak sua pistu, emakumeak tresnak prestu, ta pertzak garbitu; alimantia aurretik, txuntxuna atzetik, umiak dantzan, danak autzelan! Pest egunian irri-arra bakoitza bere aldetik, aizpak eta anaiak, izobak eta osabak, lengusu ta illobak, aide ta ezagunak, etxe bete betian, guziak hasiz, denak alai eta pozik. Orduko ingurutxo ta alkate dantzak... ikusgarriak zine! Nai zuten guzientzat ardua ugari ontzi polit ziderrezkotan. Agintari ta buruzaiak leku egokian exerj-ta, patxaraz dantzariak begira. Mutilla burutsian, neskatxa lotsati, lotsati; jatzkera erraza, baña txukun eta garbi... aik ziran dantzak! Neska mutillak, alkate mutillak, surtzapi me politen mutur bana artu-ta... ez ola, boa! atzo, galde gorde gabeko aul aik bezala, lotu-ta... izañen antzera itsasirik... ni banintz alkate!». Alta horrelako deskribaketan ondoan lirismozko uneak ere badira, Erremun Indianok *Aña Mari* kantatzen duen honakoa esaterako: «Emen bizi da, barrindik dago / Bere katiolan txortxola / Bakarrik dago azarrika ta / urrumeda dariola / Urrumedorrek ala pistu du / Nere barruan su garra / Goko basuan piztutzen dunez / Tximistak egur igarra».

Laude et simillime pluris Basconicts fuuntur in osts, ez gehiago ez eta gutxiagorik ere, Alegria lakuntzarrak 1929. urteko Olabe sarirako aurkeztu zuen lanaren sinatzeko erabiliz euzen undatsa genuen. *Dama* izenburuko idazki honek neurritz kanpoko izateagatik sariketaz kanpo utzi zioten, alabaina epalmahalkoez izkiriatuari zerion onegitea etuzten eskertu gabe utzi nahi izan eta 300 pezetetako dirusaria eman zioten kontsolagarri. Etzen gauza berbera agitu 1930-31.eko biurtekoan helduko zen lehiaketara *Esan eta egin* lemapean aurkeztu lanarekin. *Gure ama: euskararen garai ontako egonera ta berori zaindu ta getuerrazteko biderik egokienak*, Iruñean 1932.ean karriratu zen, euskaraz eta erderaz. Manuel Irujok alde aurretik proposatu gai honen jorratzeko Alegriaren lanak lehendabiziko saria jaso zuen, 1000 pezeta borobil osotara. Xabier Gorosterratzu zensoreak etuzen, agi danean, lan haundirik izan bertan azaltzen zirenak eragozteko. Lehendabiziko 53 orrialdeak euskaraz datozkigu eta jarraian dirauten gainontzekoetan, 92.era arte, erderazko itzulpen zuzena jasotzen da. Azalpenaren ostean, eusko idazkerari buruzko hainbat dakarzikig, finitzeko egileen zerrenda luzeak eskeintzen dizkigularik. Zinez harritzen gaitu Lakuntzakoak darabilen bibliografia aberatsa eta aipatzen dituenen zeaztasun egokia. Hiru taldetan banatzen ditu sarrerak oro, hala nola, Euskaltzaindikoak, idazlari euskaldunak, eta erdaldunak. Lehendabizikoan artean Azkue, Agirre, Altube, Brousiain, Campión, Eleizalde, Intza, Lhande, Urkixo, Bahr, Orixe, Schuchardt, Uhlenbeck, Etxegarai anaiak edota Eguzkitza. Bigarren multzoan herriz Agirre Asteasukoa, Anabitarte, Beobide, Jorge Agirre, Alzaga, Allende-Salazar, Apraiz, Ariztimuño, Arrandiaga, Ignazio Artetxe, Azkue, Baltzola, Basabe, Barbier, Barandiaran, Bera, Blazy, Daranatz, Decrept, Donostia, Alfredo Etxabe, Etxaniz, Elizondo aba, Elortza, Etxepare, Etxalar, Fernández, Gerra, Garralda —«Salazenkoan iratsi du!»—, Galdos, Goienetxe, Intxaurren, Iraizoz, Larreche, Jautarkol, Landeta, Larunbe, Lekuona, Leizaola, Lertxundi, Lezo, Markiegi, Manterola, Mokoroa, Oiarzabal, Pagoaga, Rekondo, Sagartzazu, Saint-Pierre, Jose Maria Huarie Jauregi, Urkia, Urretia, Urrutia, Zamarripa eta Zinkunegi. Eta azkenik, hirugarren tropelean, honakoak: Amado Alfonso, Juan Fernández, Amador de los Ríos, Antonio Belazquez, Bosch Gimpera, Navarro Tomás, Julio Cejador, Enrique Eguren, Ramón Menendez Pidal, Enrique Beati-Moglia, Bonaparte, Cardaillac, Dogson, Faddegon, Farinelli, Geers, Giese, Gavel, Karl Hanneman, Herelle, Humboldt, Linschman, Luchaire, Mahn, Marr, Menteath, Michel, Pais, Rousselot, Stempf, Trebitsch, Urtel, Van Eys, Vinson eta Vvinkler. Hainbat argitarapenen aipamena ere badagi, *Euskal Herriaren Alde, Gure Herria, RIEV, Gure mixiolaria, Prantxiskotarra, Argia, Eskuaduna...* Zerrenden luze izanik ere honela zioskun: «Sakon xamar begiratzen asi ezkeru uts askotxo aurkituko dira izandi hontan, baña, gure nala betetzeko aski da».

Euskararen egoeraz Alegriak zerabilen eritzia ezten, pentsa litekeenari aitz, bat ere baikorra, eta zorrotz oso bazitzaigun agertzen, bai euskara idatzari zihoakionean: «Agirian dago, esan bezala, anitz idatsi eta lanketa ez gutxi egiten dela euskeraz, ala euskeraren alde. Ta, irakurri? Ez. Gezurra dirudi baña alaxe da. Irakurle gelaenak eusko ikasle edo euskelariak dirade. Euskaldun gainerakoak ezta asmorik ere! Aldistingiak, gai gutxi dutelakoz, ainbestian! Liburuak... neketan!», ala euskara mintzatuari ere heltzen zionean: «Esan dugu euskera mintzatu aldapen bera eroriaz ondamenara dijoala. Zoritxarrez ala da egia. Ontan guztiok bat gaude ta, zeaztu bearrik ez. (...) Irri parrak lenbizan, habe en cristiano irringitzak, gero, ta azkeniko, ixo, ixo, ta atzerrian edo balitz bakarrik, utse, Euskal Herri bere beren ordea, ori bai dala mingarri! (...) Gaur edo biar, oitako batek umerik izaten badu, euskara zertako? Tximu baten antzera txiki ta ondien parregarri ibiltzekonaiko naiz ni, esango du. Erdera apo! erdera irakatsi bear zitzaien. Euskera, p'a kaikuser y errematar laydazer. Ori duk. Hiru ziren euskararen etsai nagusienak Alegriaren begiko: irakaskuntza, bizibehararen Joan etorriak, langintza zerbaltetarako eusko gizonen urritasuna, eta Euskal Herriko bihotzaren berri eta izatearen jakingabetasuna. ■



Mozorro egunak

Asteburuan hamaika herritan ospatuko dira molde zaharreko zein berriko inauteriak

Duela hilabete hasi baziren ere, asteburu honetan ikusi ahal izango da inauterien aberastasun guztia herri eta hirietako kaleetan. Hamaika herritan aterako dira molde zaharreko zein berriko mozorroak, eta hamaika aukera izango dira ikusle eta partehartzaile gisa gozatzeko. Heldu diren igandean eta asteartean izango dira zita nagusiak.

Alberto Barandiaran / Iruñea

ZANPANTZAR hotsak oraindik akitu ez direla, mendialde osoa barneratuko da asteburu honetan inauterien magiaren azpian. Uitzik eta Eratsunek hasi eta Zubietak, Iturenak, Leitzak eta Sunbillak jarraitu zutenari lekukoa hartzeko. Mozorroak —trapu zaharrak batzuetan, oihal ikusgarri eta kolore bizikoak besteetan— berreskuratuko dira ganbaretatik, soinu tresnak aterako dira non-nahi, eta egun batez mito antzinakoak nahastuko dira kaletarren irudimenarekin.

Behiala hiru egun ziren inauterietakoak: izakunde edo gizakunde, gizonezkoendako, andrakunde edo emakunde, emakumezkoendako, eta orakunde edo orokunde, umeen, eta, oro har, denen eguna zena. Gaur egun horrek ez du jada egunok banatzen, eta egutegia herriz herri asko aldatzen bada ere, gaur hasi eta astearte bitarte egiten dira Nafarroako inauteri, iote, aratuste edo ihauteri gehienak.

Euskal Herrian aberatsenak dira nafarrak. Oro har, ñabardurak ñabardura, hiru eskualde bereizi daitezke mozorroen ezaugarrien arabera. Lehena, joriena, mendialdekoa izango zen, Baztan-Bidasoa osoa eta Leitzalde ere hartzen duen eremua, hain zuzen ere. Etxez etxe eskean joateko ohiturak oso indartsu dirau oraindik herri txikitetan, eta handietan —Bera, Lesaka, Elizondo, Leitza— nahastu egiten dira kaletarren jantzi koloretsuak trapu zahar eta zabarrek. Multzo honen artean bereizi egin behar dira Zubietak eta Iturengoak eta Lantzekoak, askoz konplexuagoak eta aberatsagoak, eta ederki ezaugarriak gure artean ezezik kanpoan ere, ikertzaileek lehen eta komunikabideek azken urteetan eman dieten zabalkundearengatik.

Bigarren multzoa Sakanakoa litzateke. Altsasu eta Olaztikoa duela zenbait urte berreskuratutako ondoren, bitxiak eta oso ikusgarriak dira eskualde honetako mozorroak, eta azpimarratzekoak dira Unanu eta Ihabarkoak, gaur egun arte lehengo ezaugarriak bizirik gorde dituztenak. Larruek eta sardeek presentzia handia dute, eta denek dute ezaugarri komuna: oso gogorrak zirela garai batean, herrikoak izutzerainoko eta baita zauritze-



Oihal puskez egindako mozorroek arrakasta handia dute Lesakako inauterietan.

JAGOBA MANTEROLA

Mendialdean indartsu dirau etxez etxe eskean joateko ohiturak, eta herri handietan nahastu egin dira kaletarren jantzi koloretsuak trapu zahar eta zabarrek

rainokoak ere. Horregatik desagertu ziren herri gehienetatik, bertakoek ere gaizki ikusiak zirelako frankotan.

Hirugarren multzoa Iruñeritik beherakoek osatuko lukete. Aspaldian galdu zen ohitura toki gehienetan, eta azken urteotan pertsonai historiko edo mitikoak berreskuratuko dira han eta hemen. Berriozarren joan den mendean frantziarren aurka altxatu zen Espoz y Mina generalaren laguntzaile bat, Txolin, aukeratu dute, Noainen Mielutxi, Zizur Nagusin Tartaloo, Antsoainen Ezkabatziki, Atarrabian Atarrabi eta Miquelats, Erriberrin karatuloak, peleleak eta mozorroak, Lizarran Aldabika joan den mendeko lapurra...

Unanu eta Ihabarkoak, ezezagunak eta erakargarriak • Unanukoak dira, denen artean, interesgarrienetakoak, nahiko ezezagunak izanik ederki konstsebatuak iritsi direlako egun hauetara. Mamuxarroak dira bertako pertsonaia nagusiak eta igande eta asteartean ateratzen dira karriketara. Kaltzontzilo luzeak eta franelazko alkondarra txuria daramate, gerriko gorria eta panpoxilak —zintzariak— dilinka, buruan kolorez-



Animalien kaskezurrak, larruek eta sardeek ikusten dira Altsasun.

OLALDE

ko zapia, aurpegian metalezko kareta, eta eskuarteak makil luzea. Mamuxarroen ondoren doa Muttua, emakumez jantzirik hau eta kolore biziez apaindurik.

Igandean mamoxar gazteak ateratzen dira Berainen magalean dagoen herrixka honetako karriketara. Iote guztiak diren antzerki horren barruan zeregin nagusia dute neskei ziria sartzea —musuren edo zirriren bat lapurtzea alegia—, etxeetan sartzea eta kalean dabilzanak egurtzea (gaur egun zirikatzea). Lehen, panpoxilek abisatuta, jendeak garaz ixten zituen etxe-ateak ezer onik iragartzen ez zuten mamoxarrei sarrera galarazteko, baina horretarako zegoen Muttua, hain zuzen ere

sarrera libre uzteko galtzontzildun hauei. Jendea kaletik ihesi zihoan bitartean ondoko kanta abesten zuten: «Mamoxarro, txirri, txarro, kateriarako, zazpiña uzker afariako, zata begigorri, urten behin etorri».

Igandean, Jendea egurtu eta beldurtu ondoren, limosna eske ariko dira gazteak, eta ondoren afaria egingo dute jasotakoarekin. Asteartean izango da mamoxar zaharren eguna, eta bertan 18 urtetik gorako unanuarrak aterako dira. Iote honetan garrantzi berezia du katola esaten zaion kareta metalezkoak, duela urte asko etxe guztietan egon dena. Herrian inork ez du gogoratzen noiz eginak diren, eta, are, noiz iritsi ziren ganbaretara.

Iruñeritik hegoaldera egiten diren artean gehienak desagertu dira, eta azken urteotan pertsonaia historiko edo mitikoak berreskuratuko dira han eta hemen

Sakanakoetan larruek eta sardeek presentzia handia dute, eta denek diote oso ezaugarri gogorrak zirela garai batean, eta horregatik desagertu zirela gehienak

Ihabarkoa ere aipatu behar. Sakanako ihauteri ezezagunen artean. Igande eta astearteko arratsaldean ateratzen dira bertan ere Aitexarko, Landerra eta Ninia, traputan bildutako enborra azken hau. Aitexarko asto baten gainean pasiatzen zuten, eta Landerrak gertutik jarraitzen zion, Ninia edoskitzen zuen bitartean. Plazan amaitzen zuten antzerkiak, Lantzeko ihauterierekin gertatzen zen bezala, mozorroek Landerrari Ninia kendu eta horma baten kontra botatzen zuten. Aitexarko sutan hiltzen zuten. Gauza bera gertatzen zen Arakilen desagertutako beste pertsonaiekin ere: Altxon zarko Irañetan, Aitixarko edo Ititxarko Iriberrin, Atixarko Ekain... Herriko gazteek pasiatzen zituzten kaleetan zehar, eta sutea zen denen hondarreko patua. Arbizun ere aittun handia eta amiñ txikia pertsonaia prestatzen zituzten herriko gazteek, gero erretzeko.

Asteburu honetan, beraz, bada non aukeratu. Lesakako zaku-zarrak, Berako inude eta artzainak, Arizkongo hartz beldurgarria, Luzaideko gorriak, bandelariak, azeriak eta maskak, Lantzeko Miel Otxin, Ziripot eta Zaldiko, eta herri orotako norberaren mozorroak dira eskaintza. X

◆ **Andres Iñigo Ariztegi** ◆ Euskaltzaindiko Nafarroako ordezkaria

«Gauzak egiteko gogoz sartu naiz»

Euskaltzaindiko zuzendaritzak Miguel Sanz Nafarroako lehendakariarekin protokolozko bilera egin zuen joan den astearte goizean. Nafarroako Jauregian egindako bilera, Andres Iñigo Euskaltzaindiko Nafarroako ordezkari berriaren estreinako ekitaldi ofiziala izan zen. Euskaltzaindiak, joan den ostiralean izendatu zuen Andres Iñigo Nafarroako ordezkari.

Edurne Elizondo / Iruñea

EUSKALTZAINDIKO Nafarroako egoitzan hartu gaitu Andres Iñigok, Conde Oliveto kalearen bigarrenean. Egun gutxi dira Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariaren ardura bere gain hartu duela, baina gauzak egiteko gogoz dagoela azaldu digu.

■ **Jose Maria Satrustegik, hemezortzi urte egon ondoren, Nafarroako ordezkariaren lekukoa eman dizu. Erantzukizun handia al da?**

Satrustegi hemengo egoitza sortu zenetik izan da bertako arduraduna, eta lan handia egitea tokatu zaio. Oraingo egoera, noski, ez da berdina. Baina ni ere, gauzak egiteko gogoz sartu naiz. Zama da, alde batetik, erantzukizun handia, eta horrek pixka bat beldurtzen nau. Baina gauzak ahalik eta hobekien egiten salatu naiz.

■ **Egoera ez dela berdina erran duzu, 20 urtetan asko aldatu da.**

Euskaltzaindiaren martxa, noski, aldatu egin da urte hauean guztietan, normalizatu egin da. Hasiera batean, ahal zuen bezala egiten zuen lan. Egun, ofizialtasuna badu. Pauso garrantzitsuak eman dira. Funtzionamenduari dagokionez ere, oso egituratua dago Euskaltzaindia gaur egun.

■ **Zuen betebeharra ere aldatu egin al da?**

Gure lana ikerketa egitea da, gero arauak ezarri ahal izateko. Euskara zaindu eta bultzatzea ere gure zeregina da. Ikerketa, zenbait batzorderen bidez egiten dugu. Aipatzekoa da, adibidez,

hiztegigintza batzordean lan handia egiten ari direla azken urteetan, baita dialektologia batzordean ere, atlasa osatzeko. Baina, oro har, erran behar da, guzti hau lortu ahal izateko, gure aurretikoek lan handia egin behar izan zutela, meritu handia izan zuten. Hasieran, gainera, Euskaltzaindia bakarrik zegoen, baina gaur egun, erakunde asko dago, medio gehiago dago, hor dira, adibidez, AEK edo IKA. Eta nik uste dut inork ez duela monopolioa izan behar, bakoitzak bere arloan egin behar du lan. Eta guri, ikerketa egin eta arauak ezartzea dagokigu, baita euskararen zuzentasuna zaintzea ere.

■ **Joan den asteartean Miguel Sanz Nafarroako presidenteari bilera egin zenuten.**


Miguel Sanzi gure lanaren berri eman genion. Azaldu genion hizkuntza ideologiaren gainera dagoela, gure ondarea dela eta hori zaindu, hobetu eta bultzatu behar dugula. Eta horretarako, dirulaguntza gehiago behar dugula esan genion, gauza gehiago egin ahal izateko. Bere erantzuna orain artekoari eutsiko diotela izan zen.

■ **Zer egingen zenukete dirulaguntza gehiago lortuz gero?**

Informatikaren alorrean, adibidez, aurrerapen asko egin dira eta Euskaltzaindiak baliabide gehiago izanen balu eremu horretan, nik uste dut pauso garrantzitsuak emanen lituzkeela. Baina gaur egun ditugun medioekin, gure aurrekontuarekin, ezin dugu proiektu berezirik abian jarri.

■ **Gobernuak, baina, ez du laguntza handitzeko asmorik.**

Gero eta jende gehiagok ikasi nahi du euskara. Gobernuari dagokio eskaera horri erantzuna ematea, eta hori eskatzea, berriz, herriari»



Euskaltzaindiak Nafarroako ordezkari izendatu du Andres Iñigo.

LUIS AZANZA

Antza denez, ez. Argi dago orain arte egin denari eutsiko diotela baina ez dutela bultzatuko. Eta guri gustatuko litzaiguke bultzatzaile izatea, baina hori beste mundu bat da. Ikusi beharko da Nafarroako Gobernuak nola garatzen duen euskararen irakaskuntza, zein neurri hartzen dituen, zer laguntza ematen duen jendea euskalduntzeko, bere zentroen bidez, edo beste zentruoi laguntza emanez. Ondarea mantentzen ahal duzu, hor eduki, baina hizkuntza ez da altxor estatiko bat, zabaldu egiten da, eta horrek, gutxienez, baina gero gehiago ematea eskatzen du.

■ **Eta bultzada hori ematea Gobernuari dagokio, zure ustez?**

Bai, nik hala uste dut. Argi dago euskara zabaltzeko medio gehiago erabili behar direla. Urtetik urtera ikusten da euskara ikasi nahi duen jendearen kopurua igotzen ari dela. Hizkuntz Eskolan urtero ikusten dut nik hori. Orain dela bost urte, 300 bat ikasle berri izaten genituen euskara ikasteko. Azken urteetan, berriz, 1.500 edo 1.700 izan ditugu. Guztiak lehenengo mailan sartzeko. Hor dago kokka. Horrek erran nahi du beharra gero eta handiagoa dela, gero eta jende gehiago dagoela. Hizkuntz Eskolan bezala, gauza bera gertatzen da ikastetxeetan, IKAn edo AEKn. Eta denok dugu horren berri emateko obligazioa. Gobernuari

dagokio eskaera horri erantzuna ematea, eta hori eskatzea, berriz, herriari.

■ **Beste gai bati helduz, martxoaren 21 eta 22an Euskaltzaindiak bere barne jardunaldiak egingo ditu Iraizotzen, Policarpo Iraizozkoaren omenez.**

Bai, 21ean euskaltzainek bilera egingen dute, eta 22an, Policarpo Iraizozkoaren jaiotzaren mendeurrena aurten ospatzen dela aitxakiatzat hartuz, ekitaldia egingen dugu. Gure asmoa haren lana argitara ematea da, eta horren berri eman genion Miguel Sanzi ere, laguntza behar baitugu. Haren lana oso zabala da eta uste dugu interesgarria izanen dela ezagutaraztea. x

s o s l a i a

Iturenen jaioa da Andres Iñigo Ariztegi. Geografia eta Historian lizentziatua da eta Filosofia eta Letretan doktore, 1978. urteik aurrera. Iruñeko Hizkuntz Eskola Ofizialeko euskara irakasle titularra izan zen Andres Iñigo. Egun, bertako zuzendaria da. Iaz, Nafarroako Euskara Kontseiluko kide izendatu zuen Nafarroako Gobernuak.

Euskaltzaindiarekin duen lotura aspaldikoa da. 1985. urtean Azterketa Batzordeko kide izendatu zuten, eta 1987an euskaltzain urgazle. Egun, Onomastika Batzordeko kidea da, baita Jagon Sailekoa ere.

Ugartak dira Andres Iñigok argitara emandako lanak. Hizkuntz Eskola Ofizialean euskararen irakaskuntzari buruzkoak kaleratu ditu, baita toponimia eta onomastikarekin zerikusia dutenak ere. Hauen artean 'Toponimia Historica del Valle de Santesteban de Lerin' edo 'Ituren udalerriko toponimia' dira aipagarri. Nafarroako Gobernuaren 'Nafarroako Toponimia eta Mapagintza' lanaren egileetakoa ere bada.

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI EROA



chamfort